

Isabel Etxanobe Oteiza

*Mañaria,
Bizkaia
(1926-2013)*

Aurkibidea

Biografia



Mañariko Abadetxean jaio zen, baina Urkuletan hazi eta bizitakoa da. Gurasoak ere mañariarrak izan zituen. Umetan herriko eskolara joan zen, baina denbora gutxian baserriko lanak eta gerra tarteko. Gerra sasoian, gainerako auzokideek bezala, etxea utzi eta herri aldera joan ziren amamarenera. Beti aritu zen baserriko eta etxeko lanetan.

Zintak

MAN-019

- **Proiektua:** Mañariko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-03-30
- **Iraupena:** 71 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea

MAN-020

- **Proiektua:** Mañariko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-03-30
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Domeketako erromeria

- **Erref:** MAN-019/002
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:01:16. **Bukatu:** 00:04:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Umetan domeketan eta iluntzetan herrira joaten ziren, Mañarira. Filarmonika jotzen zuten eta dantzan aritzen ziren. Arin erretiratu behar izaten ziren etxera. Mutilek dantza eskatzen zien; inguruko guztietakoak etortzen ziren. Senarra ere Mañarikoa zen, baina ez zuen dantzan ezagutu. Erromeriarako arropak ez ziren bereziak. Apurtu arte erabiltzen zituzten soinean.

2. Bekatuaren arabera zigorra

- **Erref:** MAN-019/004
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:07:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Abadearengana joan eta konfesatzea derrigorrezkoa zen. Bekatuaren arabera zigorra jartzen zien. Ez zuten bekaturik egiten, gezurrak kontatzen zituzten. Mutil-lagunari ezin zieten musurik ere ematen.</p>

Transkripzioa

- Ai pekatuek, pekatuek! lehenau konfeseu ein biher izetan zan abadieganana juenda. Ai pekatuek, holan ala? oingo moduen edozer?
- Eta zer pasetan zan ba?
- Ze pasetan zan abadiak kastigue zelako pekatuek esaten otsezun abadiari honenbeste kastigu ta hara bankuetara juen ta honen beste errezeu ta honen beste denporan belauniko egon edo ta holan asko, ta danak begire.
- Ta ze pekatu eitten zenduen ba?
- Ze pekatu eitten geñun? ezebez, guzurren batzuk esan, ze ingo geñun ba besterik ba orduen? lapurretarik ez geñun ein, dakigule behintzet.
- Nobixoari musuek emon-edo
- Nobixoaz? orduntxe nobixoaz zoker eittie baiño ez euen. Ta gero astue kargau ezker zer? zer paseuko zan? astorik egundo ez dozu ikusi, astorik egundo ez dozu ikusi, ala? astueri otzarak kargeu ezker.
- Nobixoari ezer ein musutxuek ezer nobixoagaz?
- Musuek eta zirrik bez ezebez, ta ondtxuen arkalen ondtxuen etorri ezker, baten bat datorrela ikusi aparte, hondiño urriñau apartau.
- Baia ezkondu eurretik ez zenduen ez zirrik ez ezebez ein?
- Zirrik? ba zirrix jantzan eitten geñuzen. Han ibiltan ibil giñen arka ebatute ta ze zirri ta ze histori ingo giñun ba? ai ama!

3. Hamarrenak, buldak eta garizuma

- **Erref:** MAN-019/007
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:07:52. **Bukatu:** 00:11:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

<p>Ezkondu ostean ere, konfesatzera joan behar izaten zuten. Hamarrenak egoten ziren: soloan hartutakoaren hamarrak elizara eraman behar izaten zuten. Mañariar bat hamargarren umea ere abadeari ematen ahalegindu zen. Buldak ordaintzen zituenak ez zuen bijiliarik egin behar. Garizuma oso gogorra zen. Garizuma garaia oso gogorra zen.</p>

Transkripzioa

- A klaro! Lehenau elizako zerak eta be hamarrenak-eta egoten zien?
- Hamarrenak.
- Bai Hamarrenak, bakizu zer? amamak ez deu holakorik esan?
- Zertzuk zien, espliketu.
- Hamarrenak zertzuk zien? soluen artue hamar zer hartzen baziñun, ba hamargarrena elizarako, abadiendako edo ez daitz norendako, edo Jaingoikuendako.
- Edozer? soloko edozer?
- Saso baten holantxi zan. Buldak-eta, zuk egundo ez dotsazu entzun amari eta amari holakoik? ba ha bizi izen bazan orduen nik baiño handixauak esango abazan.

- Buldak zetako zien?

- Buldak, buldak. Entzunde deukozu ala? ai zoker bai. Buldak, bai. Ta gizon batek, Mañeriko gizon batek, ein ei zeban, ba ba zelan hamargarrena zelan emon biher izetan zan ba hamar zarakadatik bat, artue bazan ba bat elizarako, ta ba dana holantxik geuza guztixe, saso baten. Hainbeste nik buldak-eta ezagutu nittuen, baia nik entzunde amari eta aitteri-ta, hamargarrena zela. Ta gizon batek hamar ume, hamargarrena umie euki ei zeban, hamar ume, hamargarrena, ta abadieri erun ein otsen. Hamargarrena dala ha be. Ta abadiak: "ai nik ez, nik hori ez, nik hori ez". Ta "ba nik orduen artorik bez, ta garirik bez ta babarik bez" esan ei otsen. Abadiak ba hamargarren umie ez ei otsen hartun gure izen ta ba esan ei otsen "ba orduen besterik bez".

- Dana emon biher bazan.

- Ba karo, hamargarrena, hamargarrena. Ta buldak pageu ein biher izeten zien buldak-eta. Sekule ez dozu entzun hori?

- Esplikeu eizu, zetako zien buldak?

- Papel batzuk, ba nik zer esango dotsut? errezibo batzun moduen.

- Baia buldek pagau ezker, ze pasetan zan?

- Ta beste gauza bat, buldaik pagau, honek zoker badaki, buldaik pagau ezien, bijilixetan okelaik bez ta holako geuzek be jan ezin, ta buldak pagau ezker libre. Zer da hori? ba oin, bueno haundixe esateko egon naz ta ez nue esaten ze bestela esan biher naben /binaben/ handi bat.

- Ta bijilixe ta Garizumie gogorra zan?

- Bai. Honbre! Garizumako barikuetan-ta okelaik-eta jaterik ez euen. Eta ganera honenbeste urtetik, zemat urte dien ez naz akordetan, baia honenbeste urtetik hara barau ein biher, barau ein biher, beste bat. Bakizu zer dan barau?

4. Mañariko eskola

- **Erref:** MAN-019/010
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:13:30. **Bukatu:** 00:16:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

Eskolan gutxi ikasi zuten, gerora ikasi duela dio. Eskolan pizarra handi bat zuten, klarionarekin idazteko. Mutilak aparte egoten ziren, ezta jolas-orduan ere. Mutilek maisua zuten eta neskek maistra. Ahal zenean joaten ziren eskolara, baserriko lanek uzten zutenean.

5. Gerran, amamaren etxera

- **Erref:** MAN-019/012
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:18:26. **Bukatu:** 00:22:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra Zibilean frontea hurbil izan zuten. Balak etxe barruraino sartzen ziren. Baserria utzi eta herri aldera joan ziren amamaren etxera; Urkuletako auzoa hustu egin ei zen. Bitartean, soldaduak-edo egon ziren beraienean, eta tximinia erre zieten.

6. Abereak kendu zizkieten

- **Erref:** MAN-019/013
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:22:31. **Bukatu:** 00:24:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Behiak, ardiak, astoa, ahuntzak, oiloak... zituzten etxean. Bere aita Izurtzara joan zen abereekin eta milizianoek ia denak kendu zizkieten. Sei oilo eta ahuntz bat baino ez zuten mantendu; oiloak ohe azpian ezkutatzen zituzten eta ahuntza tuberia batean.

Transkripzioa

- Ta gurien be, ardixek be baegozan ta behixek be bai ta astue be bai ta ahuntzek be bai ta oilluek be bai. Ta aitte ba Izurtzara bajatu zan, zerakin, behixekin ta ardixekin, ta erun otsiezan lantzien ba lantzien ardi guztziek, milizanuek edo dana dalakuek, tropak edo historixa, lantzien bat hildde jango abien-edo, ardi guztixek eta behixek be bai. Ta astue ume eitteko ta orduen astuek-eta frentera, ta Otxandixora eroan abien, Otxandixon frentie hor. Ta astue be kendu oskuen eta eroan abien. Ta geldittu giñen sei oillo ta ahuntz bataz, ta harek sei oilluek kajan sartu ta egunez eukitten geñuzen ohepien sartute ta ahuntze eukitten geñun egunez, ostien errekie eguen, gure amamen-eta ostien errekie egon zan, ta han ba kalietako tuberixak-eta zerien, eta halangoxe tuberixa baten sartute ahuntze eukitten geñun, ta gabetan atara ta jaten emoten gontsen. Ta oillueri be gabetan.

7. Milizianoen medikuak lagundu zien

- **Erref:** MAN-019/015
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:25:59. **Bukatu:** 00:28:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Gerratean aita gaixotu zitzaien eta miliziano batzuk lagundu zien beraien batailoiko medikuak artatu baitzuen.

8. Euskadiko dirua balio barik

- **Erref:** MAN-019/018
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:30:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa

Laburpena:

Gerraostean apurka-apurka egin zuten aurrera. Diruarekin arazo larriak egon ziren, Euskadiko diruaren balioa indargabetu egin zuten-eta.

Transkripzioa

- Ta gerra ostien ze akordeu dekozu?
- Gerraostien esan dotsut zelan ibilli giñien eskolan, zelan ibiltten giñien.
- Ta bizimodue, ganadu barik-eta, zelan konpondu ziñien?
- Aprukan-apurkan erosi ein biher. Bai hori ba, dana batera ibili barik lantzien bat-edo erosi biher, ez. Ta hau be, hau be, honegaz be beste ostikada bat egon zan orduen denporan, dirue be, kanbixeu ein zan, Euskadiko dirure ta gero hau buelteu zanien, Euskadiko diruek be nulo bota. Ta dirudunek be diru barik geldittu han be. Terrible zan gero, ha terrible zan.

9. Gerraosteko jatekoak

- **Erref:** MAN-019/019
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:30:02. **Bukatu:** 00:31:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Baserrian ez zuten goserik ezagutu. Taloa, morokila, porru-patatak... izaten zituzten, ez zuten non aukeratu, baina faltan ez.

10. Errotak estraperloan

- **Erref:** MAN-019/020
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:31:07. **Bukatu:** 00:32:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Mañarian bi errota egon ziren eta gerratean estraperloan aritzen ziren, gauez lanean. Abastoetakoek, polizia moduan, zarratu egiten zituzten zigilu batekin, baina errotariek kendu egiten zuten gauez.

11. Ilunetan mendian galdu zirenekoa

- **Erref:** MAN-019/022
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:32:24. **Bukatu:** 00:34:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Behin Arratiara joan zen San Antolin batzuetan, baina gehiago ez zen bueltatu. Etxerako bidean, ilundu egin zitzairen eta mendian galdu ziren. Orduan bizitakoak kontatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Baten joan nitzen Arratixera ta barriro ez. San Antolin batzutan, ta arratsaldeko ordu bixetan [...] egoteko ba koadrillan juteko ba zan ordue, baia gero etxerako iñor batu ezin, harako zertu zien moduen. Ta ba abemarixetakue etxera etor biher izeten zan, ba gu lagunok etorri giñien, hiru edo lau-edo ez daitz zemat giñien, Maxima-ta, Maxima Etxebarriko zuk ezetu ziñun? Maxima, Isuntzako Eugeni ondio bizi da, Donata ni, ez daitz beste gehixau bagiñien. Ta honantza gatozela, ba iretargirik bez, illundu oskun, [Iñun] ganera, [Iñun] ganera zuk ez dozu jakingo nun dauen? joan giñien koadrillie, baia [Iñun] ganera orduko illundu oskun, ta gero ezer ez gendun ikusten, galdu giñien han, mendixen, ta batien harantza ta bestien horrantza, han batek etzun deu, etzunde egon biher dogule, musturrekin eurrera juen zan. Ta gero birek ezin topau ta halakon baten handik-hortik ibili giñen eta Itsuntza? Itsuntzaneko puntara urten geñun, hatzien puntara, Itsuntza? ta Donatak eta Eugenik orduentxe ezetu nun gauzen ta nundik gatozen, bestela ez daitz nun egongo giñien. Pentseu eizu zelan egongo zan etzunde egon bihera egoteko. Esan naben: "ni ez barriro", ta gehixau jun bez. Jo, ez ze halan ibiltteko, jo!

12. Morokila eta ogia zelan egin

- **Erref:** MAN-019/024
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:35:52. **Bukatu:** 00:38:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

Morokila zelan egiten den azaltzen du. Irinarekin ogia eta taloa ere egiten zuten. Ogia egiteko etxeko kanpoko labea erabiltzen zuten

13. Andrak lanean eta gizonak siestan

- **Erref:** MAN-019/025
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:38:27. **Bukatu:** 00:40:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gizonek etxe barruan ez zuten lanik egiten. Soldadu egoten ez zirenean,

tailerrean lanean. Solotik etortzen zirenean, etzundu egiten ziren mahai prest egon arte. Bazkalostean andrek dena jaso arte siesta egiten zuten. Gizonezkoak etxean lanean ikusten bekatua zen.

Transkripzioa

- Andrazkoan biherria edo?
- Makiña bat ein naban neuk be.
- Eta gizonak?
- Ba gizonak soldau!
- Baia soldau ez zien egoten beti.
- Gizonak lehen gizonak soldau, oin ezkontute gero taillerrien, ezkontute gero taillerrien. Baia bestela soldau gizonak.
- Etxe barruen ez zebe biherrik eitten.
- Gizonak? zer dan bez, golperik bez!
- Baia soloan eta bai.
- Bai soloan be sarriten andrak urten biher eurretik. Ez gizonak eitten abien, lehenau gizonak eitten abien, solotik etorri ta etzunde paretan zien andrak behixe emon ta mahaixe ipiñi ta bazkarixe atara ta ein artien. Ta gero bazkaritten abien orduen, atzera siestara. Edo zer, zakuek hartun, zaku ganiien pareute etzunde ta han, andrak fregeue ein eta inguruek ein artiño. Ta gero solora be sarriten andrak eurretik.
- Ta andrak ezien etzunduten?
- Bai zera etzun. Andrak beti eukin biher etxien, etxe barruen. Soluen lelengo eta gero etxera etorritte etxien eta kortan-ta barriro. Oin oin espabillau die pixkat gizonak, oin gizonezkuek oin, oin. Ze lehen gizonak.
- Ez jakielako erakusten umetatik.
- Lehenau gizonak biherien ikustie-ta etxien, bueno! pekatue zan.

14. Arroba garbitu; lixiba

- **Erref:** MAN-019/027
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:41:57. **Bukatu:** 00:44:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropak eskuz garbitzen zituzten erreka harri baten jota, txinbo xaboia eta sosa xaboia erabiliz. Sutarako hautsarekin lixiba egiten zuten, kirruzko izarentzat nahitaezkoa zen.

15. Etxeko garbitasunak eta usain gozoa

- **Erref:** MAN-019/029
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:45:42. **Bukatu:** 00:48:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Etxeko garbitasunak zelan eta zerekin egiten zituzten azaltzen du. Ereinetza eta erromerua usain ona egoteko erabiltzen zuten, umeei fardela aldatzerakoan be usain txarrik ez izateko erabiltzen zen.

Transkripzioa

- Etxeko garbittasune? arenetako geuzie bazan, belaunikoa pareu eta "ri-ra-ri-ra" eskobilla zahar bategaz lelengo eta gero moltso bat az [...] eta holan. Oingo moduen lustrerik-eta ez, e! oin jentiek baztarratan lustrie da, baia. Lustrie edo brillue esan gure dot. Lustrie lehen be zan handiki etxietan-eta zien lustriek eta horrek be.
- Itsuskixe-eta?
- Itsuskixe? edo holako kañaberazkue eta giñerrezkue-edo.
- Fregonarik?
- Fregonie? baldie.
- Bakarrik.
- Ba sartu han baldien trapu zahar bat eta beti estutute.
- Eta horrek moltsoak zelakoak izeten zien?
- Moltsoe? ba trapu zaharren bat.
- Edozein trapu?
- Bai, dekenak deken modukue. Oingo moduen dendara jun ta erositte ez, e! ai jaingoikue, hau ona!
- Erropa zaharren bat orduen?
- Traste zaharra, ezetarako ez dan traste zaharra.
- Ta ibiltzen zenduen bedarren bat-edo usiñe atateko?
- Bedarra?
- Ereinxotza edo holako zozer.
- Ereinxotzie bai, erromedue be bai. Etxien be usaiñe edo zozer eittie gure bazan, txingerrak atara katxarro zahar batera eta ereinxotzien orrixek bota edo romerue bota edo ta haixe ereinxotz usiñe ta erromeru usiñe. Lehenau umiek be txikixek kanbixetan zien orduen, ba brasie atara eta ereinxotzie bota hara ta paseu zerien ta ume txikixek be oin koloniakaz dauzen moduen, ereinxotzi usiñegaz egoten zien, ibiltzen zien. Ta bakizu hori be, ez? entzun dozu, ezta?

16. Umeen fardelak

- **Erref:** MAN-019/030
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:48:10. **Bukatu:** 00:50:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

Umeen fardelak izara zaharrekin eta mantarrarekin egiten ziren. Umeen prakek atzealdean jostura solte izaten zuten makurtzen zirenean kaka libre egin zezaten.

Transkripzioa

- Ta "umiek kanbixeu" esan dozu. Umiek lehen, oin pañalak-eta eukitten dabez, lehen?
- Ba orduen ez, orduen izarak. Txikixek harak eta oiñezerako edo juen

artiño, mantarrak esaten zan, mantarra. Izarie eta ganetik mantarra, sendo-sendo bat eindde, noberak edo joskilliek einde. Mantarra, entzunde dekozu? mantarra ganetik. Ta geroba pixkat zertzen zien orduen, oiñezera-eta juen deitzezan, gonatxuek-edo, orduen gonatxuek edo pratatxuek-edo, holan izeten zien. Ta mutillei be bai pratatxuei edo oiñez edo zerien, ba pratetara kaka ein ez dizien be makurtzen zien orduen, kanpora ein dizien, pratatxak atzie zabalik-eta.

- Zelan hori? pratatxak zelan, esplikeu eizu.

- Ba erropak joskurie zertzen jake ba. Beittu eizu! hau ta honek jositte bixok egon biherrien, ba joskurie honango bat-edo suelta ta makurtzen zien orduen ba pratetara be [...] kaka.

- Libre.

- Ba klaro libre.

- Ta gero hori dana eskuz garbittu biher.

- Bai, ha kanpora eitten abanien harek gero paletiaz, bota zozeaz askara edo zozelan paletiaz. Iñun die, iñun dienak urtengo die hemen.

17. Zaldarrak kentzeko oilo-korotza

- **Erref:** MAN-019/035
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:58:02. **Bukatu:** 00:58:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Zaldarrak kentzeko oilo-korotza ona zen.

Transkripzioa

- Ta zaldarrak kentzeko-edo?

- Zaldarra? zaldarrak kentzeko horren osaba batek erremediox euki eban: oillo-korotza!

- Oilo korotza?

- Paulok. Txarto egoten zan ha zaldarrakin. Kokotien-ta urten otsiezan zelako zerak. Ta oillo-korotzaz esaten abien zertu abala.

Oillo-korotza ba ez daitz ba oilluek ein barrixe ipini edo ze, nik horxei ez daitz, baia harek oillo-korotzaz zertu abazala esaten abien.

18. Bizioentzako erremedioa

- **Erref:** MAN-019/038
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:59:33. **Bukatu:** 01:00:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Bizioentzako (heste-zizareen kontra) botikan erositako paper-hautsa eta likido gorri bat hartzen zuten.

Transkripzioa

- Zure etxien iñok eukitten bazen?

- Bizixuek gogorak zien orduen, bizixuek [...].
- Ta ezer hartzen zenduen bizixoantzat?
- Ba bizixio, papel heutsek. Farmazixetan egoten zien "papel heutse" izena eukienak, bai. Papel sobrie, sobretxu batzuk, barruen heutse, ez daitz zelako heutse.
- Uretan-edo.
- Ba uretan pixkat zertute, papel heutse. Ta beste bat be, likido bat be, ezin jat akordeu ba, gorri-gorri bat, txarra hartzeko, haixe! Izena be zelan eukon hak? zan gorri-gorrixe likidue, izena be ez daitz, ez naz, ezin dot akordeu izena. Botillakoa, botillako bat zan, jarabe baten tiporakue, baia txarra, gorri-gorrixe, baia izenik ezin jat akordeu.

19. Apurtutako atzamarra zumitzarekin lotu

- **Erref:** MAN-019/039
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:00:58. **Bukatu:** 01:02:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:

Medikuarenera gutxi joaten ziren. Atzamarra apurtzerakoak zumitzekin lotzen zuten osatu arte.

Transkripzioa

- Zure amak eta aitte be ez zien izengo medikutara asko joanikoak.
- Lehenau medikugana asko ez zan joten holan zerien, edozer dekozulaitiño-ta, bai! Lehenau apurtzen zien igual atzamarra apurtu-ta zera, lotu zozer ipini zimitzek-eta. Zimitzek bakizu zertzuk dien? zuk bakizu. Zimitzek ipini ta lotu trapure ta hari batzuekin igual, ta halantxik osatu, osatu artien.
- Esplikeu eizu zertzuk dizen zimitzek.
- Zertzuk dien zimitzek? egurrek.
- Baia ze egur?
- Ze egur? edozein, ona! ze esango dotsut? baia lisue izen ezkerro egurre. Esate baterako urrenak edo intxaurrenak edo holakoak, holakuek.
- Suterako ibiltzen dienak.
- Klaro sue eitteko-edo ba.

20. Jaio eta bataiatu

- **Erref:** MAN-019/044
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:05:24. **Bukatu:** 01:07:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Umea jaio eta hurrengo egunean bataiatzen zuten. Bataiatu gabekoak kanposantu kanpoan lurperatzen ziren. Umeen izena etxeokoe erabakitzen zuten, beraienean amamak.

Transkripzioa

- Eta umie eukin ta gero ze eitten zan umiegaz?
- Umiaz zozer ein? ba kunan ipini edo, titixe emon ta.
- Bai, baia bautixeu!
- Ai bautixeu? jaixo eta hurrengo egunien bautixeu biher izeten zien lehen, egun [...] dala. Ta baten bat hiltzen bazan, kanposantuen ez zeken lekuri bautixeu barik baeuen. Kanpuen, kanposantuen, kanposantuek kanpuen han honako zer bat, ez daitz oin iguel egongo da kanbixeute be, kendute dau, ezta? kanpo zera, ba bautixeu bakuek hantxe.
- Eta umiek bautixetan eta zu, ama?
- Hantxe, ba ama etxien ta aitapontako ta amapontako umiaz ta aña, aña edo baten bat aña-edo.
- Eta izena nok jartzen otson ba?
- Umien izena? nok pentsau?
- Etxien ha ipiniko dotsau hor ipiniko dotsau, handik apartetan zan baten bat.
- Baia zuek edo aittitte ta amamak.
- Bai, gurien amama zan.

21. Umeen izenak erabakitzea

- **Erref:** MAN-019/046
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 01:07:42. **Bukatu:** 01:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

<p>Bere seme-alaben izenak amamak aukeratu zituen. Izen horiek zergatik jarri zituzten azaltzen du. Izen euskaldunak ere bazeuden; berari "Elisabete" esaten zioten batzuek, baina ez zuen gustuko.</p>

Transkripzioa

- Eta zu konforme amak esaten ebanagaz?
- Niri ze ardure doste, ba?
- Zure umiek zien.
- Bai, baia. Bat izen edo bat ipiñi edo bestie ipiñi, antzeran.
- Baia izen danak ez jatzuzen gusteko.
- Nik ez neutsien holan dan-dana be, gurien: bata Karmen, Karmen egunien jaixo zan-ta; bestie Jose Agustin, aittitte zan aittitte bat zan Agustin eta bestie Jose zan, ta Jose Agustin; ta bestie da Maria Elena ta Santa Rita egunien jaixo zan. Ta Santa Rita ipiniko ote otsien zerien, eta hamen albokuen txakur bat "Riki" izena eukona, ta zera alderdi baten "Riki" ta bestien "Rita" ba txakurre deittu ta igul umie etorriko dala, ta iguel txakurreri "Riki" deittu ta iguel umie etorri ta "Rita" deittu ta txakurre etorri.
- Badaezpda be Elena.
- Maria Elena ipini etsien. Santa Rita egunekue.
- Hobeto Maria Elena, Santa Rita baiño.
- Ez daitz nik.
- Ta euskerazko izenak jartzen zien?
- Bai. Egoten zien euskerazko izenak. Neu be "Isabel" naz ta "Elisabete"

esaten ostien, baia. Batzuk "Elisabete" deitzen ostien, ta beste batzuk "Isabel" ta ba izen bixeri erantzuten notsien. Baia larrei etxatan gustetan, garbi esaten noie, larrei ez jatan gustetan "Elisabete" esatie. Ze batzuk esaten ostien, ni elizara jueten nazen orduen elizie bete-bete eitten doala. Barre eitten dozue? ez die barregarrixok horrek.

- Hori burletako zan.

- Sarriten putxuko bat emoteko, ardurik ez dostela paretan nitzen egoten nitzen, bueno demostreu ez nabari eitten e, baia barrutik demoniñoa eukitten naban.

22. Garai bateko jaunartzea

- **Erref:** MAN-020/002
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:00:27. **Bukatu:** 00:02:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Garai bateko bizimodua. Lehenengo jaunartzean ez zen izaten gaur egun moduko ospakizunik. Arropak ere ahal ziren modukoak. Uda edo negua izan, arropa bakarra izaten zuten eta apurtu arte harekin. Jaunartzea egin eta gero, domeketan konfesatu eta jauna hartzera. Gezurra esateko beldurra izaten zuten. Elizan neskak eta mutilak aparte.

23. Mezara baraurik, ahoa bustitzeko ere beldurrez

- **Erref:** MAN-020/003
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:02:46. **Bukatu:** 00:05:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Mañarian goizeko zortzietan eta hamarretan izaten ziren mezak. Baraurik joaten ziren, ahoa bustitzeko ere beldurrez. Mezak euskaraz ala latinez izaten ziren. Liburu handietatik irakurtzen zuten apaizek. Orduan derrigorra zen mezara joatea. Igandean lan egitea, berriz, bekatu galanta. Baserriko beharrak bezperan egiten zituzten, igandean mezara joateko.

24. Ezkon-bidaiarik ez

- **Erref:** MAN-020/007
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:09:06. **Bukatu:** 00:10:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Ezkundu zirenean ez zuten inora bidaiarik egin. Dirua behar horretarako! Bere gurasoak Donostiara joan ei ziren ezkon-bidaian. Ezkontzako argazkiak ateratzera Durangora joan ziren.

25. Inguruko herriak ere ezagutu ez

- **Erref:** MAN-020/010
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:13:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>lurreta non zegoen ez zuen jakin berandura arte. Durangora joaten ziren, baina Durangon ere eliza eta plaza ingurua ezagutzen zituen bakarrik. Orduan ez zen edonora hain errez joaten. Otxandiora melokotoiak saltzera joaten zen astoarekin, goizeko ordu biak inguruan irtenda. San Antonio egunean Urkiolara.</p>

26. Melokotoi asko eta saldu egin behar

- **Erref:** MAN-020/011
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:13:26. **Bukatu:** 00:15:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Melokotoi asko izan zuten sasoi batean. Gereziak ere bazituzten, baina Arrueta aldekoak ziren ezagunagoak. Melokotoi sasoiari, saldu egin behar, ustelduko ez baziren. Orduan marmeladak zer ziren ere ez. Batzuek dozenaka erosten zituzten eta beste batzuek kiloka. Azokan ateratako diruarekin etxerako gauzak erosten ziren (olioa, adibidez).</p>

27. Josleak etxerik etxe

- **Erref:** MAN-020/013
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:16:27. **Bukatu:** 00:17:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Oihalak Durangon edo Mañarian erosten zituzten. Mañarian josleek ekartzen zituzten oihalak. Batzuek etxerik etxe ibiltzen ziren, arropak konpontzen. Euren etxera senarraren izeko bat joaten zen.

28. Gabonetako kantak

- **Erref:** MAN-020/016
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:18:23. **Bukatu:** 00:19:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

<p>Gabonetan kantatzen zituzten kantak: "Gabon gaboneta..." eta "Erregen erregen...".</p>

29. Gabonetako postreak; Erregeei zapata?

- **Erref:** MAN-020/017
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:19:07. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gabonetan intxaur-saltsa jateko ohitura zegoen. Umeentzat sugearen formako gozoak ere izaten ziren. Euren amak ere eramaten zizkien kaxa txiki batzuk. Erregeen oparirik ez zuten jaso egundo. Behin bat edo batek zapata jarri omen zien eta goizean txakur gorotzez beteta aurkitu zuen.

30. Hortza jausitakoan, teilatura edo lurpera

- **Erref:** MAN-020/019
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:21:29. **Bukatu:** 00:22:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Umeei hortza jausitakoan, behekoa bazen, teilatura botatzen zela dio; goikoa bazen, berriz, lurperatu.

31. Bedeinkatutako kandelak

- **Erref:** MAN-020/024
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:24:08. **Bukatu:** 00:25:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Kandelario Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Kandelario egunean kandelak bedeinkatzera eramaten zituzten. Gero gorde egiten ziren, behar zenerako. Bat edo bat txarto zegoenean, elizakoak eramaten zitzaizkion. Abadea etxera joaten zen eta mahaia, kandelak eta behar zena prest edukitzen zen.

32. Abadiñoko San Blasetatik ortozik etxera

- **Erref:** MAN-020/025
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:25:20. **Bukatu:** 00:26:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Blas
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Behin joan zen Abadiñoko San Blas jaietara. Bazkalostean irten ziren etxetik eta atzera abe mariatarako itzuli egin behar. Berandutu egin zitzairen eta arineketan hasi ziren. Baina zapatekin ezin zuten arineketan egin eta ortozik (galtza-hutsik). Durangon pasatzean, jendeak begiratu egiten zien. Gehiago ez zen joan.

33. Dantza lotua bai, baina tarte handiarekin

- **Erref:** MAN-020/028
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:27:58. **Bukatu:** 00:29:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Garai batean Andra Mari jaiak eta San Juanak ospatzen ziren Mañarian. Domeketan plazara dantzara. Dantza lotua libre zegoen, baina tarte handia utzi behar. Gauza asko galdu dituztela dio. Orain gaztea izango balitz....!

34. Astoarekin beldurtu zen gizona

- **Erref:** MAN-020/033
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:33:35. **Bukatu:** 00:34:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gizon batek esaten zuen bera ez zuela ezerk beldurtzen eta behin astoak beldurtu omen zuen. Ilargirik gabeko gau batean, kaletik etxera zihoala, astoarekin tupust egin zuen estratan eta sekulako sustoa hartu omen zuen.

Etxanobe Oteiza, Isabel | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com